

Erronkari buruzko fitxa

PARKE

Nola **ikus genezake gure datu-baseetan daukagun informazioa, PARKEko arlo guztietara iristeko sarbide bakar batetik, barne-operatiba eta, aldi berean, bezeroarentzako zerbitzua hobetzeko?**

Azpi-erronkak:

- Nola **berma** genezake PARKEko bezeroen, hornitzaileen eta profesionalen datuen **osotasuna eta trazabilitatea**?
- Nola **lor genezake** PARKEn erabiltzen ditugun **datu guztien ikuspegi historikoa** gure bezeroei erantzun egokiena emateko?
- Nola **lor genezake datuen bistaratze lagunkoiagoa**, horietan oinarrituta erabakiak hartzea errazteko?

Testuingurua:

EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOAK enpresa-ekimena eta -inbertsioa sustatu eta bultzatzen ditu azpiegiturak eraikiz, enpresa berritzaileak eta goi-teknologiakoak kokatzeko eskakizunei erantzuteko kalitatezko ingurune egokia sortzeko. Era berean, zerbitzu bereizgarriak eskaintzen dizkie campusean lan egiten duten enpresa eta profesional guztiei.

Zerbitzua hobetzeko eta PARKEko kide diren enpresen eta profesionalen egungo beharrei erantzuteko, beharrezkotzat jotzen dugu horiei buruz erabiltzen dugun informazioaren 360º-ko ikuspegi eguneratua izatea.

Beharrei erantzuteko, informazioa daukagu zenbait tresna eta datu-basetan (gorabeherei buruzko informazioa, mantentze-lanak, fakturazioa, harremanetarako datuak...), eta uste dugu, zerbitzu ezin hobea eskaintzeko, informazio horrek eskuragarri egon beharko lukeela gizarteko arlo guztietarako sarbide bakar eta komun batean.

Helburuak:

Gutxienez helburu hauetakoren bat betetzen duten irtenbideak bilatzen ditugu:

- PARKEko datuen **osotasuna eta trazabilitatea** eskaintzea.
- Erakundeko datuen **ikuspegi historikoa** izatea.
- Datuen **bistaratze lagunkoiagoa** eskaintzea.
- Denbora errealean **eguneratutako datuak** izatea.

Zeren bila gabilta?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Abstrakzio-geruza kontuan hartu behar du.
- Gure egungo sistemekin (ERP, Sigrid, Prisma eta Mailchimp) komunikatuko den irtenbide bat izan behar du.
- Irtenbideak abstrakzio-geruza bat sortu behar du, lehendik dagoen informazioa ikusarazten laguntzeko.
- Irtenbideak intuitiboa, eskuragarria, sinplea eta bisuala izan behar du.
- Eskura dagoen informazioa zabaldu eta osatuko duten kanpo-iturriez elikatzeke aukera eman behar du.

Prozesua eta data gakoak:

Erronkan parte hartzeko, eman izena esteka honetan. [oraindik jaso gabe].

- Honako hau da proposamenaren erantzuna jasotzeko azken eguna: 2024/05/02ko 23:59.
- Finalerdira iritsi diren startupen berri 2024/05/10ean emango da.
- Startup finalisten berri 2024/05/24an emango da.
- Startup irabazlearen berri 2024/06/13an emango da.

Hautaketa-prozesuak 3 fase ditu:

1. **1. fasea:** finalerdikora iritsi direnek aurkezpena egingo diote sozietateari. Hiru startup finalista hautatuko dira. 2024ko maiatzaren 16tik 24ra izango da.
2. **2. fasea:** sozietateak elkarrizketa-txanda egingo du finalistekin. 2024ko maiatzaren 27an izango da.
3. **3. fasea:** sozietateak azken bilera egingo du finalistekin piloturako startup irabazlea hautatzeko. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, azelerazio-programan zehar.

Zer eskuratzen duzu?

Startup finalistak (3)

- Bi eguneko govtech **azelerazio-programa**. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, Bilbon, aurrez aurre.

Startup irabazlea

- **Irtenbidearen aurkezpena Demo Day de BIND GovTech 2024an**, Bilbon, aurrez aurre.
- **Ordaindutako pilotua**, gehienez 15.000 euro. Irtenbide irabazlea ezartzeko pilotua 2024ko uztailean hasiko da eta 5 hilabeteko iraupena izango du.